



Zurriolako Ataria

78. alea 2019-11-22

Kazkabarra Soroan

Aurreko ostiralean sorpresa politarekin egin genuen topo atarian: haurrek izugarri gozatu zuten kazkabararekin!



Baso eskola: HHko Gurasoak eta irakasleak

Atzo Hurren burutu zen saioan 40 bat gurasok Basoeskola proiektuaren aurkezpenean parte hartu zuten. *Ekoguneko* arduradunek argi azaldu zuten proiektuaren nondik norakoa. Bihar, larunbatez, HHko irakasleek bigarren prestakuntza saioa izango dute Tabakaleran eta Gladys-enean.



LH3koak liburutegiak esploratzen

LH3ko ikasleak Donostiako Parte Zaharreko liburuak ezagutzera irten dira gaur, Liburuk programaren baitan. Datorren asteartean maila bereko falta diren ikasleek ere aukera izango dute espazio erakargarri hauek ezagutzeko.



GKAI - "Bizitzari kantua" erronkan

Lanbide Heziketako 2. mailako ikasleak joan den asteartean Tolosako Inmaculada Ikastolan izan dira. Bertako heziketa zikloetako ikasleekin batera, ikastetxe-arteko BIZITZARI KANTUA erronkan parte hartu dute.



Ostegunean Hezkuntza Proiektuaz

(Albiste errepikapena) **Azaroaren 28an** Zurriola Ikastolako Hezkuntza Proiektuaren aurkezpen/anketa-saioa egingo da Hurrako areto nagusian 17:30ean. Honez gero, zuzendaritzan, irakasle etapatan eta Eskola Kontseiluan landutako testua gurasoengana bideratu nahi dugu, abenduko Batzar Nagusian aurkeztu baino lehenago. Hauxe duzue euskaraz egingo den lan saio honetan parte hartu ahal izateko bete beharreko [inprimakia](#).



ArgiTXOkolatea ArgiTXOfren

Gaur zortzi, **azaroaren 29an**, 18:00etan Txofren txokolate-jatea izango dugu Argitxofren urbetetze ospakizuna aurreratuz. Abenduaren 3an ikastolan egingo ditugun bestelako ekintzen aurrerapena izango da hau, Zurriolako gurasoek antolatuta. Animatu eta edalontzia ekarri, txokolatea guk jarriko duguet!



Inauterietarako prestatzen

(Albiste errepikapena) Bildu ahal izan ditugun jantzien kopuru murritza dela medio, ikasturte honetan ere ohiko prozedura erabiliko dugu Inauterietako jantzien homikuntzarako. Beraz, [esku-liburu](#) honetan dituzuen irizpideen arabera osatu beharko du familia bakoitzak bere jantzitegia. ([Info+](#))



Ohiko garraio zerbitzua: Txartelen erosteta

Aurten garraio zerbitzuan egindako antolaketa eta berregokitapenak antolako medio, txartel solteak erosteko aukera eguerdiko garraio zerbitzura mugatu genuen.

Azken egokitzapenak direla medio, eta **arratsaldeko garraioari** dagokionez, Soroatik hasita ohiko ibilbidea egin ahal izateko txartel solteak erosteko aukera zabalduko dugu. Hortaz, gaurtik aurrera, txartelok erosi ahal dira bai eguerdiko garraioan (12:30 eta 15:00), bai SOROAtik irtetzen den arratsaldeko zerbitzuan (17:00). Ohi bezala, txartelak idazkaritzan erosiko dira eta ikaslearen tutoreari, txartelarekin batera, idatzizko mezu bat eman beharko zaio aldiro.



OHARRAK / AGENDA:

- LH3-BATX2: Seaska egutegia 2020. [Zirkularra](#).
- LH2: Bakarkako guraso-bileretarako hitzorduak hartzeko papera geletan jarriko da. Azaroak 27.
- LH2: San Tomas festa. [Zirkularra](#).
- LH4: Albaolara irteera. Egun pasa edo goiz pasa zehazteke. Azaroak 28. [Zirkularra](#).
- LH6: "Teknologia Berrien erabilera arduratsua" ikastaroa ikasleentzat. Goizez. Azaroak 26.
- LH6: Zumaiaiko Flysch-etara irteera. Egun osoa. Azaroak 25.
- BATX2: Orientazio saioa. Gurasoentzat. Azaroak 27. 18:00. [Zirkularra](#).
- Gurekin Zerbitzuetan lan egiteko: [Galdetegia](#).
- Artezkaritza Kontseilua: Azaroak 25.
- Eskola Kirola: 5. jardunaldia. A eta B.
- Zuberoko Ikastolak sustengatzeko kanpaina: [Informazioa](#).
- Aisialdiko jarduerak haurrentzat: [Azaroak 22-24](#).
- Nitik harago, baietz 11: Gaur hasiko da kanpaina. [Infoa](#).

